



1992-2017

Munduko Osasun Erakundeak
Fibromialgia onartu zuenaren
25.urteurrena.

FIBROMIALGIA ETA NEKE
KRONIKO SINDROMEAREN XV
MANIFESTUA

Duela 25 urte, **Munduko Osasun Erakundeak Fibromialgia onartu zuen** gaixotasunen nazioarteko sailkapenaren barnean entitate klinikoa gisa gehituz. Neke Kronikoaren Sindromearekin batera, ohorezko salbuespenak izan ezik, bakartasunean ibilitako bide luze eta estu honetan garrantzia handiko aurrerapena izan zen.

25 urte hauetan, gaur “**min kronikoaren paradigma**” kontsideratzen den gaixotasuna **nabarmentzea** eta agenda sozialetan, profesioaletan eta politikoetan barneratzea lortu dugu.

Arazoaren sustraiak identifikatzen eta ezjakintasunaren, mesfidantzaren, susmoaren eta baita mespretxuaren aurka ere borrokatzen hasi ginen prozesu hau.

Pazientzia, konstantzia, konplizitatea eta aldarrikapenen bidez aurrera egiten joan gara; alde batetik, onarpen eta errespetua irabazten eta bestetik, diagnostiko eta tratamenduetan eta arreta plan eta protokoloetan hobekuntzak lortzen.

Guzti hori karrankarik gabe, xantaiarik gabe, deskalifikaziorik gabe. Gure esfortzu eta konpromiso pertsonala eta soziala dela medio, baina batez ere, gaixotasuna jasaten duen talde osotik igorritako **arrazoiaren** bidez eta **gogoz, seriotasunez, profesionaltasunez eta irmotasunez** lan egin duten elkarten **indarraren** bidez.

Kolektibo eta entitate hauek aldarrikapen mugimendu bat sortzeko gai izan ziren eta gaur *Sentsibilizazio Zentraleko Sindromeak* izeneko gaixotasun multzoan barneratzen diren gaixotasunekin partekatzen dugu aldarrikapen mugimendu hau, guretzat lehentasunezkoak diren aldarrikapenak entzunarazteko:

- Profesionalen, instituzioen, agente sozialen eta gizartearen aldetik **onarpena**.
- Diagnostiko, tratamendu eta garaiko detekzio hobekoak lortu ahal izateko **ikerketak**.
- **Osasun arretaren hobekuntza** eta baliabideen kalitate eta eskuragarritasunaren eta Osasun Sistema Publikoko zerbitzuen berdintasuna bermatuko duten protokolo bateratuen ezarpena.
- **Lanerako sarbidea**, lanpostuen egokitzapenaren bitartez edota txertatze laboralerako formula berrien bitartez.
- Gaixotasunaren larritasunak lan egiten uzten ez duen kasuetan, **gizarte prestazio zuzenak eta egokiak**.

25. urteurren honetan, **berezitasunaren zirkulua irekitzeko garaia dela uste dugu**, horregatik, **min kronikoa eragiten duten beste gaixotasunen bat** jasaten duten pertsonen eta elkarrekin eskualdia ematen diegu, gure indarrak batu eta partekatzen ditugun problematikei elkarrekin aurre egiteko.

Nagusiki prozesu akutuak tratatzera eta ezgaitasuna eta objetibagarri izateagatik lehenetsuzkotzat jotako parametro gaizki kalifikatu batzuen bidez ebaluatzen zuzenduta dagoen Osasun eta Gizarte Sistemaren barruan ez ahokatzearen ondorioak dira problematika hauek, eta horrek **ikusteaz bihurtzen du min kronikoaren izaera ezgaitzailea**.

Mina, hain zuzen ere, pertsona baten bizi kalitatearen **parametro determinatzaileetako bat** da eta ahaztu egin da, gure kasuan, bizitzetan **uneoroko kontua** dela.

Urteurren honetan, orain arte egindako borrokarekin eta hartutako erabakiekin harro sentitzen gara.

Baina urteurrenaren urte honetan, **erabaki eraberrituekin** eta helburu eta erronka berrieekin **begiratzen diogu etorkizunari**.

Eta pertsona, entitate, profesio elkargo, zientzia sozietate, zerbitzari publiko eta administrazio guztiak deitzen ditugu ilusioak, indarrak, erabakiak eta politika soziosanitarioak bateratzera, **justua, eskuragarria, bidezkoa, berdintasunezkoa eta kalitatezkoa den Osasun eta Gizarte Sistema baten eremuan**, hiritar guztiei ahal den bizi kalitate onena eskaintzeko.

Ez gehiago, ez gutxiago.

2017ko maiatzaren 12a. Munduko Osasun Erakundeak Fibromialgia onartu zueneko **25. urteurrena**.